

Jurdana Uriarte Lejarragak, Bermeoko Udaleko idazkari nagusiak, ziurtatzen dot, 2023-04-25(e)(a)n, TOKIKO GOBERNU BATZARRAK erabagi hau hartu dauela:

5.- 2023KO LOKALBIDE PROGRAMAKO DIRULAGUNTZAREN DEIALDIA ONARTZEA.

Xedea

2023ko Lokalbide programako dirulaguntzaren deialdia onartzea.

Aurrekariak

Lehenengoa: Bermeoko Udalaren ardatz nagusienetarikoa Bermeoko Alde Zaharraren dinamizazioa da eta garapen ekonomikoa bultzatzea da.

Bigarrena: Lokalbide dirulaguntzaren helburua, alde batetik, Alde Zaharra ekintzaileentzako gune erakargarria bihurtzea eta bizitasuna emotea da eta, beste aldetik, jarduera gabeko lokal hutseei bisibildadea emotea.

Hirugarrena: Lokalbideko dirulaguntza argitaratu zenetik gaur egun arte, hamabost ekintzailek bere negozioa ireki dute. 2021eko deialdian 5 eta 2022ko deialdian 10 enpresa ireki dira.

Laugarrena: 2023ko Lokalbide programako dirulaguntzaren oinarrien aldaketa 2023ko martxoaren 31ko Oso Bilkuran onartu dira.

Argudioak

Lehenengoa: 2023ko Lokalbide programako dirulaguntzaren oinarrien aldaketa 2023ko martxoaren 31ko Oso Bilkuran onartu ondoren, deialdia onartu behar da.

Bigarrena: Erabakia hartzeko ahalmenari jagokonez, 2022ko ekainaren 16ko 2037 zenbakidun Alkatetza Dekretuz onartutako delegazioen arabera, dirulaguntzak emoteko deialdiak onartzea Tokiko Gobernu Batzarrari dagokio.

Erabakia

Tokiko Gobernu Batzar honek, aho batez, honakoa ERABAKI DU:

LEHENENGOA: 2023ko Lokalbide programako dirulaguntzaren deialdia onartzea.

BIGARRENA: Dirulaguntzen Datu Base Nazionalak eskatutako informazioa



jakinaraztea Datu Baseari.

HIRUGARRENA: Idazkaritza Sailari eta Berualari erabaki honen berri ematea.

LAUGARRENA: Hurrengo O soko Bilkuran erabaki honen berri ematea

Eta honela izan daiten eta ondorio egokiak eragin daizan, ziurtagiri hau idazten dot, erabagia agertzen dan akta behin betiko onespeneren menpean dagoela ohartarazota (Toki Erakundearen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoa onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 EDaren 206. artikulua arabera), Aritz Abaroa Cantuariense alkatearen aginduz eta oneretziaz.

Orri-oinetan sinatzailea eta data



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:

07E7000C4D5C00H3C9Y3L6B5B9

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA -
27/04/2023
MARIA IDOYA PLATAS ARENAZA-ALKATEORDEA - 27/04/2023
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 27/04/2023
09:08:57

EXPEDIENTE ::
2023IDA_ERA_0023
Data: 14/02/2023
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea:
Erregistro nagusia



CSV: 07E7000C4D5C00H3C9Y3L6B5B9